



## **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

2021-03-23an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 23-03-2021 .

### BERTARATUAK- ASISTENTES

#### Alkate-Udalburua

Josu Ezkurdia Santamaría

#### Zinegotziak

Maite Uribe Beristain  
Purificación Regidor Valera  
Antonio Regaño Sájeras  
Josu Ezkurdia Santamaría  
Ana Belén de Castro Ramos  
Eluska Irazu Henández  
Dorleta Sologaitoa Aguiriano  
Ander Errarte del Pozo  
Leire San Vicente Carrillo

#### Idazkaria

### **EDURNE ITURBE LASKURAIN**

Eskoriatzan, 2021eko martxoaren 23an, arratsaldeko 18:00etan, Josu Ezkurdia Santamaría jarduneko Alkate-Udalburua buru dela, eta goian aipatutakoen parte hartzearekin, telematikoki bildu da Udalbatza, ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Jose Ramon Zubizarreta Alegria.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 23 de marzo de 2021, TELEMATICAMENTE quedó constituido el de la Corporación en sesión bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente en funciones D. Josu Ezkurdia Santamaría, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste José Ramón Zubizarreta Alegria.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAAB8MVK.1QMJ>

**Ohiko Osoko Bilkura**  
Pleno Ordinario  
2021/03/23



## **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

### **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2021/02/23 eta 2021/03/09.

### **2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.**

2021eko martxoaren 16ra arte hartutako erabakien berri eman da.

Eluska Irazuk bi erabakiri buruzko galdera egin du, eta erantzun zaio.

### **3.- BAKE EPAILE BERRIA ETA ORDEZKOA PROPOSATZEKO ESPEDIENTEA HASTEA.**

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Bake Epaile Titularra eta Ordezkoa lehiaketa bidez aukeratzeko deialdia arautu behar duten oinarriak onartzea.

**Bigarrena.-** Lehiaketarako deialdia egitea, eta horretarako iragarkia jartzea Udaletxeko iragarki oholean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Eskoriatzako Bake Epaitegian.

### **3.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.**

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaratura egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuegatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboei eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

<b>KONTZEPTUA/ EPEA/ZENB</b>	<b>ZENBA TEKOA €</b>	<b>ZERGADUNA</b>	<b>ZERGATIA</b>
<b>IBILGAILUAK/202001/698</b>	<b>262,65</b>	<b>CORTAZAR AREJOLALEIBA, IGOR</b>	<b>Ibilgailuaren baja 2018an.</b>
<b>URA/202003/1448</b>	<b>157,03</b>	<b>OTAMENDI TOLOSA,</b>	<b>Ur-Irakurketaren akatsa</b>

**Ohiko Osoko Bilkura**  
Pleno Ordinario  
2021/03/23

**Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

		<b>MAIDER</b>	
<b>URA/202003/1056</b>	<b>130,27</b>	<b>JABEKIDEAK-SANTA ANA 9</b>	<b>Ura eskatu zuen baina atzera egin zuten.</b>
<b>IBILGAILUAK/202001/2383</b>	<b>193.30</b>	<b>PETRAR,,ADRIAN IOAN</b>	<b>Rematrikulatuta 2019an</b>

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea kontuhartzailletza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoei beste arrazoiren batzuegatik preskribatuzat edo baliogabetuzat deklaraturako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

**5.- 4/2021 KREDITU ALDAKETA.**

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 4. espedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzailleak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipaturako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako betebeharrei.

Era berean, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Aztertu eta bototara jarrita, bertaratutako udal batzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 4. espedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapituluko laburpenaren arabera.

**Kredituak transferituko dituzten gastu partidak (bajak)**

<b>Partida</b>	<b>Izena</b>	<b>Hasierako kreditua</b>	<b>Murrizketa</b>	<b>Amaierako kreditua</b>
1 0100.622.342.20.01 2021	KIROLDEGIA	157.859,50	129.115,00	28.744,50

**Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

	<b>GUZTIRA</b>	<b>157.859,50</b>	<b>129.115,00</b>	<b>28.744,50</b>

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

<b>Partida (*)</b>	<b>Izena</b>	<b>Hasierako kreditua</b>	<b>Gehikuntza</b>	<b>Amaierako kreditua</b>
1 0100.622.323.40.02 2021	LUIS EZEIZA IKASTETXEA	0,00	129.115,00	129.115,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>0,00</b>	<b>129.115,00</b>	<b>129.115,00</b>

\* Aurrekontu partida berriak sortu ahal izango dira.

**Bigarrena.-** Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako tramite barik eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa.

**EH BILDUREN BOTO AZALPENA:**

- Nestor Arana: guk baietz bozkatuko dugu, ezin baita ukatu behar bat dagoela; eskolara joaten bagara, ikusiko dugu behar handia dagoela, teilatuaren egoera dela-eta ur asko sartzen delako. Baietz bozkatuko dugu, baina pixka bat kezkatuta gaude jarraitutako prozesuarekin; izan ere, gai hori iaz hasi zen, eta lizitaziorako planteatzen den aurrekontua abuztuko da, eta iaz dirulaguntza bat eman zen obra horiek egiteko. Ez dakigu aurten dirulaguntzarik emango den. Hala ere, iaz ez zen obra egin eta ez da aurtengo aurrekontuan sartu. Ogasuneko lehen batzordean ez zen gaia aztertu, hirigintzako batzordean aztertu zen eta ogasuneko bigarren batzorde batean. Uste dugu prozesua presaka egin dela, eta are gehiago kontuan hartzen badugu ez dakigula aurten laguntzarik izango dugun ala ez. Alde bozkatuko dugu nahiz eta lizitaziorako bi ekarpen egin genituen. Bat da irizpide gisa sartzea enpresek berdintasun-plan bat izatea. Interesgarria litzateke irizpide hori sartzea, kontuan hartuta duela gutxi "martxoaren 8a" izan zela, oraindik asko dagoela egiteko emakumeen soldatak gizonenarekin berdintzeko, eta, gainera, ikastetxe baterako obra dela. Eta bigarren irizpidea da enpresek erabiltzen duten materiala birziklagarria izatea, horixe baita pandemia honen atzean daukagun beste arazoetako bat. Nire ustez, materialak berrerabiltzeko eta zabortegetan ez

### **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

amaitzeko prozesuak abiarazi behar ditugu. Irizpide hori ere sartzeari proposatu genuen, eta zoritxarrez ez da jaso. Eta hori guztia, ikastetxe bateko obra bat dela abiapuntutzat hartuta, Eusko Jaurlaritzarentzat jasagarritasunaren bandera dena. Gainera, uste dut horrelako obra bat hain azkar egin beharrean, kontuan hartuta ikastetxean beste obra batzuk egiteko beharra ere badagoela, jarduketa-plan bat egin beharko litzatekeela, eta horiek guztiak nola egin programatu. Ni prest nengoke lan horretan parte hartzeko eta hirigintza batzorde batean aurkezteko. Beraz, alde bozkatuko dugu, baina uste dugu beharrezkoa dela programa bat egitea ordena baten barruan jarduteko.

- Josu Ezkurdia: mila esker, Nestor! Gai batzuetan gure ikuspuntua ematen saiatuko naiz; izan ere, hainbaten artean, baten batek ihes egingo dit. Prozedurari dagokionez, ez dakit zer arazo ikusten duzuen, legeak ezartzen duen prozedura jarraitu dugulako. Egia da hasierako aurrekontuan ez zela proiektu hori aurreikusi, baina, beste batzuekin gertatzen den bezala, asko dira landu beharreko proiektuak, ezin dira denak sartu hasiera batean eta urteak aurrera egiten duen neurrian, eta landu ditzakegula ikusi, aurrekontuetan sartzen ditugu. Urtero egiten den zerbait da, lehendabizi proiektu batzuk sartzen dira eta, gero, beste batzuei ekitea posible dela ikusten bada, egin egiten dira. Beraz, nik ez dut ezer arrarorik ikusten prozeduraren ikuspegitik. Horretaz gain, esan duzu bi irizpide txertatzea proposatu zenuela, horietako bat, berdintasun-planari buruzkoa. Esan duzuna ez da guztiz zehatza, agiriak arlo horretako lege-eskakizunak betetzea eskatzen baitiete enpresa guztiei; hortik aurrera gehiago sartu nahi duzuela, ba, ez dakit zer nahi duzuen, eta ezta erabat legezkoa izango ote den ere. Jasagarritasunari dagokionez, agian gauzak hobetu daitezke, baina baldintza agiri guztietan kontuan hartzen dugun kontua da. Horren aurrean, esan dezakedan gauza bakarra betikoa da: proposamen hain orokorrak ez egitea, proposamen zehatzak eta landuagoak egin dezazuela. Ez da nahikoa esatea "hau edo hura egin beharko litzateke", baizik eta proposamen zehatzak ekarri behar dira, hau da, "nik hau jarriko nuke hemen", edo "material hau eskatu beharrean beste hau eskatuko nuke". Ezin dena egin da hona etortzea, edo batzordera joatea, eta besterik gabe bi ideia plazaratzea, are gehiago kontuan hartuta horren atzean dagoen teknikarien lana. Eskerrik asko ekarpenengatik, baina hurrengoan, proposamenak lehenago eta askoz ere zehatzago eginez gero, ba, beharbada, ados egongo ginateke eta onartu egingo genituzke. Eta hori esanda, eskertzen dut zuen jarrera, herri honentzat oso proiektu garrantzitsua dela uste dudalako, eta lehenbailehen aurrera ateratzea nahi dugulako. Hemen bi eskola daude eta biei laguntzeko gaude, eta uste dugu jarduera honek lehentasuna duela.
- Nestor Arana: alde bozkatzen badugu, guk ere ez dugulako proiektu hau atzeratu nahi da, eta norbaitek atzeratu badu, zuek izan zarete, iaztik hona atzeratu duzuenak.

### **6.- GALDE-ESKEAK.**

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:20an amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**



## **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

### **1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.**

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas en fecha 23/02/2021 y 9/03/2021

### **2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.**

Se da traslado de la Resoluciones dictadas hasta el día 16 de marzo de 2021.

ELuska Irauzu hace una consulta sobre dos resoluciones y se le informa al momento sobre las cuestiones planteadas.

### **3.-INCOACIÓN DE EXPEDIENTE PARA PROPONER NUEVO JUEZ/A DE PAZ TITULAR Y SUSTITUTO/A**

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y HAcienda, el Pleno, con el voto favorable de todos los corporativos asistentes, ACUERDA:

**Primero.-** Aprobar la Bases que han de regir la convocatoria para la selección del Juez/a de Paz Titular y Sustituto/a a través del sistema de concurso.

**Segundo.** Convocar el concurso mediante publicación del correspondiente a anuncio en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y en el Juzgado de Paz de Eskoriatza.

### **4.-BAJA DE DERECHOS RECONOCIDOS**

Dada cuenta del expediente tramitado por el Servicio de Recaudación para la aprobación de la baja de derechos pendientes de cobro de ejercicios anteriores por prescripción, declaración de créditos incobrables, improcedencia, duplicidad y otras causas.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y HAcienda y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**PRIMERO.-** Aprobar los expedientes colectivos de baja de derechos pendientes de cobro por los conceptos, sujetos pasivos e importes contenidos en las siguientes tablas y que a continuación se relacionan:



### Idazkaritza-Kontuhartzaitza

CONCEPTO/ PLAZO/Nº	CANTIDAD €	CONTRIBUYENTE	MOTIVO
VEHÍCULOS/202001/698	262,65	CORTAZAR AREJOLALEIBA, IGOR	Baja del vehículo en 2018.
AGUA/202003/1448	157,03	OTAMENDI TOLOSA, MAIDER	Error en lectura de agua.
AGUA/202003/1056	130,27	JABEKIDEAK-SANTA ANA 9	Solicitó el agua, pero luego desistió.
VEHÍCULOS/202001/2383	193.30	PETRAR,,ADRIAN IOAN	Rematriculado en 2019.

**SEGUNDO.-** Dar traslado del presente acuerdo a los servicios económicos municipales de Intervención y Tesorería para que se proceda a dar de baja en las cuentas contables y de recaudación las deudas declaradas prescritas o anuladas por otras causas.

### **5.-MODIFICACION DE CREDITOS Nº 4/2021**

Dada cuenta del Expediente de Modificación de Créditos Nº 4 , mediante transferencia de créditos entre partidas presupuestarias de Gastos que afectan al Presupuesto de este Ayuntamiento.

Se da lectura al Informe emitido por la Secretaria-Interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos establecidos por los arts. 28 a) y 29 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa, por el que se aprueba el Reglamento Presupuestario de las Entidades Locales.

Igualmente se da lectura al informe favorable y propuesta de aprobación formulada por la Comisión Informativa de Personal y Hacienda.

Tras la correspondiente deliberación y sometido a votación, con el voto a favor de todos los corporativos presentes , el Pleno ACUERDA:

**Primero.-** Aprobar el expediente de Modificación de Créditos, nº 4 , mediante transferencia entre partidas presupuestarias de Gastos que se relacionan en la propuesta formulada al respecto,

Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno Ordinario  
2021/03/23

**Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

correspondiente al Presupuesto de este Ayuntamiento y conforme al siguiente resumen por Capítulos.

**Partidas de gasto que transferirán créditos (bajas)**

Partida	Denominación	Crédito inicial	Reducción	Crédito final
1 0100.622.342.20.01 2021	KIROLDEGIA	157.859,50	129.115,00	28.744,50
<b>TOTAL</b>		<b>157.859,50</b>	<b>129.115,00</b>	<b>28.744,50</b>

**Partidas de gasto que recibirán créditos (altas)**

Partida (*)	Denominación	Crédito inicial	Incremento	Crédito final
1 0100.622.323.40.02 2021	LUIS EZEIZA IKASTETXEA	0,00	129.115,00	129.115,00
<b>TOTAL</b>		<b>0,00</b>	<b>129.115,00</b>	<b>129.115,00</b>

\* Se podrán crear nuevas partidas presupuestarias

**Segundo.-** Siendo este acto firme y ejecutivo sin necesidad de ulteriores trámites procede que por los Servicios de la Intervención de Fondos se refleje en la contabilidad la modificación de créditos aprobada con efectos inmediatos.

EXPLICACIONES DE VOTO DE EHBILDU:

- Nestor Arana: Nosotros vamos a votar que sí porque no se puede negar que hay una necesidad, si vamos al colegio se puede ver que allí hay una necesidad importante, por el estado del tejado hay filtraciones muy serias. Votaremos que sí, pero estamos un poco preocupados con el proceso que se ha seguido, porque este es un asunto que empezó el año pasado, el presupuesto que se plantea para la licitación es de agosto y el año pasado se concedió una subvención para realizar dichas obras. No sabemos si este año habrá o no ayuda económica. A pesar de ello no se ejecutó el año pasado ni



### **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

tampoco se ha incluido en el presupuesto de este año. En la primera comisión de hacienda no se trató el asunto, se trató en la comisión de urbanismo y en una segunda comisión de hacienda. Creemos que el proceso se ha hecho precipitadamente y más teniendo en cuenta que no sabemos si tendremos o no ayuda este año. Diremos que sí a pesar de que ya hicimos dos aportaciones cara a la licitación. Una es que se incluya como criterio el que la empresas dispongan de un plan de igualdad. Sería interesante incluir ese criterio teniendo en cuenta que hace poco fue el día “8 de marzo”, que todavía queda mucho por hacer para que los sueldos de las mujeres se igualen al de los hombres y que encima se trata de una obra para un centro educativo. Y el segundo criterio a incluir que sea el que el material que empleen las empresas sea reciclable, que es otro de los problemas que tenemos detrás del problema de esta pandemia, creo que debemos poner en marcha procesos para que los materiales se reutilicen y no terminen en los vertederos. Propusimos incluir también ese criterio y por desgracia no se ha contemplado. Y todo ello partiendo de que se trata de una obra en un centro educativo que es por parte del Gobierno Vasco bandera de la sostenibilidad. Además, creo que en lugar de hacer una obra como esta tan precipitadamente, teniendo en cuenta que en el colegio hay necesidad de hacer también otras obras, debiera de hacerse un plan de actuaciones y programar todas cómo hacerlas. Yo estaría dispuesto a participar en ese trabajo y a presentarlo en una comisión de urbanismo. Entonces, votaremos que sí, pero consideramos que es necesario hacer un programa para actuar dentro de un orden.

- Josu Ezkurdia: Gracias Nestor. Trataré de dar nuestro punto de vista en algunas de las cuestiones porque, entre tantas, seguro que alguna se me escapa. En cuanto al procedimiento, no se qué problema veis porque hemos seguido el proceso que fija la ley. Es verdad que en el presupuesto inicial no se contempló este proyecto, pero como ocurre con otros, son muchos los proyectos que hay que abordar, no se pueden incluir todos en un inicio y a medidas que pasa el año y veamos que podemos ir abordándolos vamos introduciéndolos. Es algo que se hace todos los años, se meten primero unos proyectos y luego, si se ve que es posible abordar otros, se van haciendo. Por lo tanto, yo no veo nada raro desde el punto de vista del proceso. A parte de eso, has comentado que propusisteis incluir dos criterios, uno relativo al plan de igualdad. Lo que has dicho no es del todo exacto porque los pliego exigen a todas las empresas cumplir la exigencias legales en esa materia, además de eso que queráis meter más, pues no se a qué os referís y si tampoco eso sería del todo legal. En cuanto a la sostenibilidad, quizá se pueden mejorar las cosas, pero es una cuestión que tenemos en cuenta en todos los pliegos. Ante ello, lo único que puedo decir es lo de siempre, que no hagáis propuestas tan generales, que hagáis propuestas concretas y más trabajadas. No es suficiente decir “habría que hacer esto o aquello”, sino que hay que traer propuestas concretas, esto es, decir “yo pondría esto aquí”, o “en lugar de exigir este material concreto yo exigiré este otro”. Lo que no se puede hacer es venir aquí, o ir a la comisión, y lanzar sin más dos ideas, y más teniendo en cuenta el trabajo que hay detrás por parte de los técnicos. Gracias por las aportaciones, pero la siguiente vez si hicieseis propuestas con más antelación y con mucha más concreción, pues igual estaríamos de acuerdo y las aprobaríamos. Y dicho esto, agradezco vuestra actitud porque creo que es un proyecto muy importante para este pueblo que queremos que salga adelante cuanto antes. Aquí hay dos escuelas y estamos para ayudar a ambas y creemos que esta actuación tiene prioridad.



### **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

- Nestor Arana: Si votamos a favor es porque nosotros tampoco queremos retrasar este proyecto, y de haber habido alguien que lo ha retrasado habéis sido vosotros, que lo habéis retrasado del año pasado a este.

### **6.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

No se producen.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:20 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**